T_01

# Lehen urrats berdeak: Sentsazioak ezagutuz

Haur Hezkuntza

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 4+1 / Ondoren 1

| IKASGAIA | GAI EKOSOZIALAK | INGURUMEN-POLITIKAK |
| --- | --- | --- |
| Ingurunea ezagutzea eta esploratzea | Eko-Mendekotasuna<br>Zibilizazio-Krisia<br>Aldaketa ekosozialeko agenteak | Hondakinak<br>Biodibertsitatea<br>Ohitura jasangarriak<br>Aldaketa Klimatikoa |



## Ikas egoeraren markoa

**TESTUINGURUA.** Iraunkortasunerako abentura honetan, haurrak Plaiaundiko hezegunearen benetako esploratzaile bihurtuko dira. Behaketaren eta jakin-minaren bidez, pertsonen eta naturaren arteko harremanaren garrantzia ikasiko dute, baita euren ekintzek planeta zaintzen nola lagun dezaketen ere.

### Abiapuntua

*Zein paisaia aurkitu ditzakegu Plaiaundin? Zer sentitzen duzu paisaia hori ikustean? Elementu naturala edo ez natura al da? Zer egin behar dugu Txingudi zaintzeko?*

**Azken ekoizpen edo produktua.** Esperientzia honek aukera emango die ikasleei naturarekin konektatzeko eta haien emozioak eta bizipenak mural kolektibo batean adierazteko. Jarduera honen bidez, beren ingurune hurbila zaintzera animatuko dira, eguneroko keinu txikien bidez.






## HELBURU KONPETENTZIALAK

- Plaiaundiren izaera naturala estimatzea eta emozioak jarduera sortzaileen bidez adieraztea.
- Ingurunearen errespetua eta zaintza sustatzea, jarrera arduratsuak hartuz.
- Naturarekin lotutako hiztegia aberastea.
- Natura behatzea eta esploratzea, inguruarekiko jakin-mina piztuz.
- Autonomia garatzea eta errespetu-arauak betetzea.
- Elementu naturalak eta ez-naturalak bereiztea.

# Lehen urrats berdeak: Sentsazioak ezagutuz



## Curriculumaren zehaztapenak

### INGURUNEA EZAGUTZEA ETA ESPLORATZEA

| FUNTZ. KONP | KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK | EBALUAZIO IRIZPIDEAK | OINARRIZKO JAKINTZAK |
|---|---|---|---|
| HKK<br>KPSII<br>HK<br>EK<br>KAKK | **2. Metodo zientifikoaren prozedurak eta pentsamendu konputazionalaren trebetasunak garatzea pixkanaka, objektuak behatzeko eta manipulatzeko prozesuen bidez, ingurunea interpretatzen hasteko eta planteatzen diren egoerei eta erronkei sormenez erantzuteko.** | 2.1. Egoerak, zailtasunak, erronkak edo arazoak kudeatzea jardueren sekuentziak planifikatuz, interesa eta iniziatiba adieraziz eta maila berekoekin elkarlanean arituz.<br>2.3. Hainbat elementu edo materialen portaeraren inguruan hipotesiak planteatzea eta eskuztatuz eta haiengan ekinez egiaztatzea.<br>2.4. Erabakiak hartzeko gero eta autonomia handiagoz hainbat estrategia erabiltzea eta planteatzen diren erronketako arazoei sormena erabilita konponbideak aurkitzea.<br>2.6. Proiektuetan parte-hartzea norberaren eta besteen iritziak partekatuz eta balioetsiz eta horietatik aurrera ondorio pertsonalak adieraziz. | **B. Esperimentazioa ingurunean. Jakin-mina, pentsamendu zientifikoa, arrazoimen logikoa eta sormena.**<br>B.1.Ingurunea ikertzeko jarraibideak: interesa, errespetua, jakin-mina, harridura, galderak egitea eta jakiteko nahia.<br>B.5.Konponbideak proposatzeko estrategiak: sormena, elkarrizketa, irudimena eta ezagutza.<br>B.6.Prozesuak eta emaitzak. Aurkikuntzak, egiaztatzea eta ondorioak.<br>**C. Ingurune fisikoan eta naturalean ikertzea. Zaintza, balioespena eta errespetua.**<br>C.2.Pertsonen ekintzek ingurune fisikoan eta natura- eta kultura-ondarean duten eragina. Klima-aldaketa.<br>C.4.Fenomeno naturalak: identifikazioa eta pertsonen bizitzan dituzten ondorioak.<br>C.5.Natura-ingurunea errespetatzea eta babestea.<br>C.6.Enpatia, animalien zaintza eta babesa. Beren eskubideak errespetatzea.<br>C.7.Ingurune fisikoan dagoen kultura-ondarea errespetatzea. |
| | **3. Naturaren elementuak eta fenomenoak ezagutzea, eta naturan eragina duten ohiturekiko interesa agertzea, pertsonen bizitzan ingurunea modu iraunkorrean erabiltzeak, zaintzeak eta kontserbatzeak duen garrantzia jabetzeko.** | 3.1. Natura-ingurunea errespetatzea eta zaintzeko jarrera izatea eta gizakien ekintza batzuek bertan dituzten ondorio positibo eta negatiboak identifikatzea.<br>3.2. Izaki bizidunek eta bizigabeek dituzten ezaugarri komunak eta ezberdinak identifikatzea.<br>3.3. Natura-ingurunearen eta gizarte-ingurunearen arteko loturak egitea naturako hainbat fenomenoren behaketatik aurrera. | |



T_01

# Lehen urrats berdeak: Sentsazioak ezagutuz

ekoetxea | ihobe ingurumen hobekuntza mejora ambiental | EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Haur Hezkuntza | SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 4+1 / Ondoren 1

## Ikuspegi ekosoziala

| IKASKUNTZA EKOSOZIALA | EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK | OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK |
|---|---|---|
| **1. Giza ekodependentzia barneratzea. Bizi-sarearen parte garela ohartzea.** | 1.1. Izaki bizidun guztiak elkarrekin konektatuta daudela onartzea. | ✷ Gizakiaren ekomendekotasuna onartzea. |
| **6. Bizi dugun zibilizazio-krisiaren egoera onartzea.** | 6.1. Natura zaintzearen garrantzia adieraztea.<br>6.2. Giza ekintzek natura kaltetzen duela adieraztea (baina giza ekintza oro kaltegarria dela orokortu gabe). | ✷ Ekintza kolektiboak banakakoak baino indartsuagoak direla onartzea.<br>✷ Naturaren edo sufritzen duten pertsonen narriadurarekiko emozioak.<br>✷ Ekintza indibidualaren eta kolektiboaren garrantzia. |
| **8. Espezieak desagertzeko eta ekosistemak degradatzeko egungo tasak atzematea, balazta jarri beharreko arazo larria baita, eta hori nola egin jakitea.** | 8.1. Giza ekintza batzuek natura eta izaki bizidunak kaltetzen dituztela jakitea.<br> | ✷ Inguruan duguna zaintzearen, mantentzearen, kontserbatzearen eta hobetzearen garrantzia ulertzea, eta ezer ez egitearen ondorioak baloratzea.<br>✷ Ingurune natural hurbilena zaindu eta errespetatzea.<br>✷ Biodibertsitatea kontserbatzeko funtsezko ildoak ezagutzea.<br>✷ Habitat naturalean bizi diren izaki bizidunen aniztasunaren ederta-suna baloratzea. |
| **14. Denboraren eta espazioaren aldetik eta beste pertsona, espezie eta ekosistema batzuekin enpatia eta errukia epe laburrean eta distantzia luzean garatzea.**<br> | 14.1. Espazioan eta denboran hurbilen dauden izakiekin enpatizatzea.<br>14.2. Besteen emozio batzuk identifikatzea, entzuteko prozesu baten ondoren.<br> | ✷ Gainerako izaki bizidunekin eta ingurune fisikoarekin enpatia sustatzea.<br>✷ Beste izaki bizidun batzuen eskubideak.<br>✷ Pertsonek beste espezieekin, berea eta planetako formazio naturalekin harmonian bizi behar dutela baloratzea. |

# Lehen urrats berdeak: Sentsazioak ezagutuz



| IKASKUNTZA EKOSOZIALA | EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK | OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK |
|---|---|---|
| **15. Pentsamendu holistikoa eta kritikoa garatzea.** | 15.1. Ikasgelan edo eskolatik kanpoko jardueretan ikusitako gertaera baten inguruko arrazoibide errazak azaltzea.<br>15.2. Gai bati buruzko informazio gehiago lortzeko galderak egitea.<br>15.3. Lan erraz bat egiteko informazioa bilatzea eta hautatzea.<br>15.4. Gauza errazen bilakaera azaltzea. Adibidez, zer aldaketa aurreikusten ditugu geltoki berri bat iristean. | ✷ Arrazoibidearen sarrera.<br>✷ Biodibertsitatea kontserbatzeko funtsezko ildoak ezagutzea.<br>✷ Informazioa lortzea. |

**Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren konpetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan.** Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentea da FUHEM.



T_01

# Lehen urrats berdeak: Sentsazioak ezagutuz

Haur Hezkuntza

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 4+1 / Ondoren 1



## Metodologia

| ESTRATEGIA | ESTRATEGIAS EKOSOZIALAK | TEKNIKAK |
|---|---|---|
| EREDU PEDAGOGIKOA:<br>Gogoetan oinarritutako ikaskuntza<br>Ikaskuntza kooperatiboa | Ikuspegi sozioafektiboa<br>Ekintzarako ikaskuntza<br>Ezagutzaren eraikuntza kolektiboa<br>Inklusioa<br>Ikuspegi holistiko eta kritikoa | OHIKOAK:<br>Solasaldia<br>Txoko edo ingurunekoak<br>Entzute kolektiboa<br>Tailerrak<br>Azalpenak talde handietan<br>EZOHIKOAK:<br>Museo<br>Beste batzuk (Babestutako eremuak) |